



Petronorren Muskizko findegia, artxiboko irudi batean. LUJSTEJDO/EFE

Petronorrek 49 milioi euro inbertituko ditu Muskizko koke plantaren geldialdian

Otsailaren 28ra arte iraungo du etenaldiak, 2013. urtean inauguratu zutenetik egindako lehenengoak • Teknologia berriak jarriko dituzte

Jon Fernandez

Urtarrilaren 16an gelditu egingo da Petronorrek Muskizen (Bizkaia) daukan koke planta, lehenengo aldiz. 2013an irekitako koke plantaren lehenengo geldialdi orokorra izango da, eta instalazioak ikuskatzeko eta berrikuntza teknologikoak egiteko baliatuko du petrolio konpainiak. Guztira, 49 milioi euro inbertituko ditu sei aste –otsailaren 28ra arte– iraungo duen etenaldian.

Baina ez da bakarrik koke planta geldituko: produkzioa etengo dute 2. Findegia eta Bihurtze sailko Huts Unitateak ere. Hain zuzen, Petronorren Muskizko findegia instalazioen %75 egongo dira itzalita. Konpainiak jakinarazi duenez, 1968an sortu zenetik egindako geldialdirik handiena izango da, orduak eta pertsonak kontuan hartuta.

Izan ere, Petronorrek 55 konpainia kontratatuko ditu instalazioak ikuskatzeko, horien erdiak Euskal Herrikoak, eta egunero 1.000 behargin ariko dira lanean plantan; egun jakin batzuetan baita 2.000 langile ere. Horretarako guztirako, 49 milioi euroko inbertisioa egingo du enpresak, eta horietatik 23 milioi erabiliko ditu

geldialdirako aurreikusitako mantentze lanetarako; beste 26 milioi euroak teknologia berriak instalatzeko erabiliko ditu. 2013ko apirilean inauguratu zuen Petronorrek koke planta, 1.006 milioi euroko inbertisioa egin eta gero: fueloil produkzioa txikitzea zen asmoa, eta balio erantsi handiagoko produktuak indartzea; besteak beste, butanoa, gasolioa, gasolina eta propanoa.

2. Findegian eta Bihurtze Sailko Huts Unitatearen geldialdia

Egunero 1.000 behargin ariko dira lanean planta ikuskatzen eta berrikuntzak jartzen; egun batzuetan, 2.000

Konpainiak azaldu du energia eraginkortasuna handitu nahi duela, teknologia berrien bidez

baliagarri izango da dorreak, ontziak, labeak, segurtasun balbulak, makinak, tresneria eta azpiestazio elektrikoak ikuskatzeko; eta baita berrikuntza teknologikoak egiteko ere.

Petronorrek azaldu du energia eraginkortasuna handitu nahi

duela instalazioetan, tximinieta-ko kea hoztuz. Eraginkortasuna handitzeak, gainera, energia aurreztea ekarriko diola nabarmendu du, eta instalazioen fidagarritasuna handituko duela.

Hauts isuriak saihestea

Hain zuzen ere, bi proiektu jarriko ditu martxan datozen astetan, bata Ikerlan teknologia zentroak sortua, eta bestea, Gaiker teknologia zentroarena. Proiektuon helburua hauts isuriaren arriskua ezabatzea izango da. Izan ere, iazko ekain hasieran, esaterako, hautsak estali egin zuen San Julian auzoa. Petronorrek barkamena eskatu zuen ohar bidez, baina argudiatu zuen isuria ez zela kaltegarria, hauts partikulak «erabat inerteak» zirela.

Konpainiak azpimarratu du otsailaren 28an eraberrituta estreinatuko duen instalazioa euskal ekonomiaren «motor bat» dela. Izatez, pisu handia du petrolio konpainiak: zuzeneko 940 lanpostu dauzka, eta 6.000tik gorra zeharkakoak; Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako BPG barne produktu gordinean %9,7ko pisua du; eta Bizkaiko Ogasunaren zerga bilketa garbiaren %12 ematen du: 800 milioi euro inguru.

Nafarroako Gobernuak 2012ko aparteko pagaren beste erdia ordainduko du

IRUÑA • Datorren urtarrilaren 6a baino lehen egingo du ordainketa Nafarroako Gobernuak. Hala, 2012an Madrilan aginduz ordaindu ez zuen aparteko ordainsariaren erdia bueltatuko die Iruñeak langile publikoetara. Guztira, 24,5 milioi euro erabiliko ditu Uxue Barkosen gobernuak bere 27.952 langileei ordainketa egiteko. Jadanik langile publiko ez direnek eskaera egin gabe jasoko dute dagokien dirua.



LABeko ordezkariak, atzo, Bilbon. MARISOL RAMIREZ / ARGAZKI PRESS

Euskal gizarte-segurantza sistema baten aldeko kanpaina egingo du LABek

BILBO • Gizarte-segurantza sistema propio baten ereduaz eta bidaragarritasunaz gogoeta egin beharra dagoela uste du LAB sindikatuak, estatus berriari buruzko eztabaidaren barnean. Espainiako Gobernuak «sistema publikoa» deuseztatzen ari dela salatu zuen atzo Ainhoa Etxaide LABeko idazkari nagusiak, eta horri aurre egin behar den EAJk nahiago duela «pentsio pribatuetan oinarritutako sistema garatu».

0,4

EAEKO ESPORTAZIOEN PREZIOEN HAZKUNDEA

Hirugarren hiru hilekoan %0,4 garestitu dira Arabatik, Bizkaitik eta Gipuzkoatik egindako esportazioen prezioak, Eustatek jakinarazi duenez. Hala ere, horien artean, energia produktuen prezioek behera egin dute, %6,7. Inportazioen prezioek ere gora egin dute, %2,2.

Kontsumobidek ohartarazi du kontu izateko 118 zenbakien tarifa garestiekin

GASTEIZ • 118 zenbakiaren hasten diren telefono zenbakiaren tarifak oso garestiak direla eta kontuz ibiltzeko ohartarazi du Kontsumobidek. Izan ere, gastua 11 eurokoa izan daiteke bakarrik bi minutuko del bat eginda. Kontsumobidek hainbat kexa jaso ditu egoera salatuzko: zortzi minutuko deingatik 55 euro kobratu dietela kexatu dira batzuk.

190

JAURLARITZAK JAULKITAKO ZORRA, MILIOI EUROTAN

Gasteizko gobernuak 190 milioi euroko zor publikoa jaulkitu du, %1,466ko interes nominalarekin, eta 2026ko abenduaren 30era arteko amortizazio epearekin. Jaulkipena bihar egingo da, Bilboko burtsaren bidez, eta bonu bakoitzaren balioa 1.000 eurokoa izango da. Jaulkipen hori egin ahal izan du joan den astean Eusko Legebiltzarra onartu zuenak 324 milioi euro gehiagoko zorpetzea.